

Erakunde antolatzailea / Entidad organizadora



Espezializazio ikastaroa

Curso de especialización

**Bake-kultura, Giza Eskubideak
eta Gatazken eraldaketa**

**Cultura de Paz, Derechos Humanos
y Abordaje de conflictos**

150 ordu
Urriak 2011-Maiatzak 2012 Bilbon

150 horas
Octubre 2011-Mayo 2012 en Bilbao

www.bakekultura.eu



Erakunde koordinatzailea / Entidad coordinadora



Gatazketarako bitartekaritza zentroa
Centro para la mediación y regulación de conflictos

edetaldea

Aurkezpena

Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak, esparru honetan lanean dihardutenen jarduera profesionala eta formazioa sustatu nahian, “**Bake-Kultura, Giza Eskubideak eta Gatazken eraldatzea**” Ikastaro espezializatua sortu du; Bilbon izango da, 150 orduko iraupenarekin. Formazio proposamen hau, Bake-Kulturaren esparruari, Giza Eskubideenari eta Gatazken eraldatzearen esparruari atxikitako hainbat galdera eta alderdi lantzeko pentsatua dago, bertan, kontzeptu, metodologia eta lanerako baliabide ezberdinak eskainiko direlakoan.

Datak: 2011ko urritik, 2012ko maiatza arte

Egunak: Ostirala eta larunbata, 9etatik 14etara eta 16etatik 19etara

Blokeak hilean behin burutuko dira

Matrikula: Doakoa.

Matrikula formalizatzeko beharrezko da ikastaroaren bukaeran bueltatuko den fidantza ordaintzea .

Hizkuntza: Saioak gazteleraz izango dira.

Azken proiektua, euskaraz nahiz gazteleraz aurkeztu daiteke.

Izen-ematea: Uztailak 13tik irailak 10era.

Partaide-kopurua: Mugatua da, gehienez 25 partaide.

Kokapena: Gazteen Euskal Behatokia.

Uriortu, 11 behe- 48007 Bilbo

Harremana: Informazio gehiago jaso nahi baduzu, jar zaitez harremanetan:

Irantzu Aurrekoetxea Perez (Formazioaren Koordinatzaile Pedagogikoa)

Email-a: formacion@bakeola.org

Tfnoa: 94. 607.25.17

Fitxa Teknikoa

Helburua

Formazio honen helburu orokorra gazteria arloko eragileak prestatzea da, Bake-Kultura eta Giza Eskubideen esparruan beharrezkoak diren oinarriak eta metodologiako teknikak eta baliabideak eskuratuz.

Formazio-saio hauetan honako konpetentziak hauek barneratzen dira:

- Bake-Kultura eta Giza Eskubideen inguruan beharrezkoak diren ezagutza eta baliabideak eskuratzea.
- Bake-Kultura eta Giza Eskubideen arloko ikuspegi, metodologia eta perspektiba ezberdinak aztertzea.
- Lan-jarduera praktikoan sortzen diren Gatazkek eraldatzeko estrategiak eta baliabideak eskuratzea.
- Negoziazioa eta bitartekaritza, Gatazkek eraldatzeko teknika alternatibo modura aplikatzea.
- Bake-Kultura, Giza Eskubideak eta Gatazken eraldatzea sustatzeko proiektu eta programak diseinatu eta ebaluatzea.

Nori zuzendua

- Administrazio publikoko gazteria saileko teknikariei.
- Gazteria arloko eragileei.
- Gazte elkarteetako arduradunei.

Metodologia

Formakuntza-saioak sei modulutan banatuko dira, eta gutxienez, %80ko asistentzia ziurtatu beharko da.

Metodologiaren funtsa, oinarri teorikoak eskuratu, eta teknika eta trebezia ezberdinak garatzea da; modu honetan ikaskuntza esanguratsua ziurtatuko delakoan. Bestalde, tutoreen jarraipena eta laguntzarekin ikaskuntza prozesua aberasteko aukera izango da.

Ebaluazioa

Formazioa amaitzean, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Zuzendaritzak dagokion ziurtagiria luzatuko du.

Ziurtagiri hau eskuratzeko beharrezkoa:

- Gutxienez, saioen % 80an parte hartzea ziurtatzea.
- Azken proiektua aurkeztea prestakuntza amaitzean, bakarka edo taldeka. Honetarako, tutore baten laguntzaz baliatu daitezke parte-hartzaileak. Ziurtagiria eskuratu bada, proiektuaren oniritzia ezinbestekoa izango da.

Irakasleak eta tutoreak

Formazioko irakasle-taldea

Aurrekoetxea Pérez, Irantzu

Pedagoga. Bakeolako, EDE TALDEKO Gatazketarako zentroa, Prestakuntza arduraduna. Bitartekaritza Soziala eta Kultura arteko Bitartekaritza graduondokoa. Programazio Neurolinguistikoko (PNL) Practicioner. Bizikidetzaren planen eta eskola-bitartekaritza programen garapenean laguntzen du.

Cascón, Paco

Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko "Bake eta Giza Eskubide" UNESCO Katedrako, Bake-Kultura Eskolako irakaslea. Espainiako ikastetxe ezberdinetan Gatazken eraldaketa gaietako aholkularia. Pangea-ko lehendakari eta Edualter-eko presidentea. "Bakerako Hezkuntza eta jolaserako alternatiba" gaitzat harturik, zenbait liburu eta unitate didaktikoen egile.

Gallastegi, Asier

Ikuspegi sistemikotik komunikazioan, prozesu pertsonaletan eta erakundeetan aditua den gizarte-kontsultorea. Gizarte -hezkuntzan diplomatua, psikoterapeuta sistemikoa,

coach/gainbegiratzaila, PNL-n eta erakunde konstelazioan practitioner eta coaching sistemikoa.

Bizkaiko hirugarren sektorean esperientzia hezitzaile eta gerente moduan. Enpresa eta erakunde desberdinekin kolaboratu programa formatzaileetan eta ezagupenaren, partaidetzaren, lan kolaboratiboaren eta web 2.0 tresnen kudeaketan.

Harillo, Susana

Irakasle eta psikopedagogo. Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzako aholkari Bakerako Hezkuntza arloan. 1992tik Euskal Herriko Gesto por la Paz Koordinakundeko kide aktiboa. Erakunde honetako "Bakerako Hezi" Komisioaren sortzaile eta ordezkaria. "Bake Hitzak" aldizkari zenbait artikuluren egilea, unibertsitate esparruko beste aldizkari batzuetan aritzeaz gain.

Hernandez Aristu, Jesus

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle titularra. Deustuko Unibertsitatean Hezkuntza Zientzietako Doktore. Ikuspegi Gestaltiko eta Psikoanalitikoko psikoterapeuta, eta ikuspegi sistemikoko gainbegiratzailen formatzaile. Erakunde eta Zuzendaritza taldeen aholkulari. Hainbat herrialdeetan argitaraturiko liburu eta artikuluen egilea.

Martin Beristain, Carlos

Osasun Hezkuntzako sendagile aditu eta Psikologian doktore. Inoiz Ez Guatemalako Txostenaren koordinatzaile. Giza Laguntza-ko irakasle (Deustuko Un.). Egiaren Komisio zenbaitetan aholkulari. Giza Eskubideen bortxaketa jasandako biktima eta adiskidetzeprosesuen inguruko zenbait libururen egile.

Martinez de Bringas, Asier

Zuzenbideko Doktorea, Zuzenbide Konstituzionaleko irakasle. Giza Eskubideen inguruan aritu izan da, kultura dibertsitatea, zuzenbide arloko aniztasuna, kultura arteko harremanak, gutxiengoan diren taldeen eskubideak eta herri indigenen eskubideen inguruan bereziki. Hego Amerikako erakunde sozial eta indigenekin lanean aritu izan da, gizarte-taldeen eskubideen arloan bereziki.

Mendez, Maria

Zuzenbidean lizentziatua, komunitate bitartekaritza ikerketa-gaitasuna. Familia eta adin txikikoekin Bitartekaritza aditua. Newfield Consulting-ek bermatutako Coach ontologikoa.

ANSE-k bermatutako banakako eta taldekako Gainbegiratzailea. ESCAT-ek bermatutako Psikodrama zuzendaria. Castelldefels-eko eta Palafrugell-eko Pla de Barris-en komunitate bitartekaria. Estatuko Bitartekaritza Master ezberdinetan irakasle partaidetza.

Muñoz Hernan, Yolanda

Psikologoa. Psikoterapeuta Sistemikoa. Bitartekaria. Gizagune Fundazioko arduraduna. Mundu Globaleko Giza Eskubideen Unibertsitate espezialista. Estatuko eta Hego Amerikako unibertsitate ezberdinetan irakasle, Gatazken eraldaketarako, bakerako eraikuntza eta elkarbizitza gaiak landuaz. Gatazken Kudeaketa eta Elkarbizitzaren Sustapena Masterreko Zuzendari (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak - EPSI Bilbon garatutako titulua).

Ramos, M^a Eugenia

Zuzenbidean lizentziatua. Gatazken Kudeaketa eta Bitartekaritza Masterra. Familia Bitartekaritza. Bitartekaritzan doktorandoa. Bitartekaritza Soziala eta Kultura arteko Bitartekaritzan graduondokoa. Gatazken Kudeaketa eta Elkarbizitzaren Sustapena Masterreko Zuzendari (Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak - EPSI Bilbon garatutako titulua). Gizagune Fundazioko arduradun.

Ruiz Santana, Gorka

Ingeniari industrial. EDE TALDEKO Bakeola-ko, Gatazken Bitartekaritza Zentrua, zuzendari. Euskadiko Giza Eskubideak eta Bakerako Hezkuntza Elkarteen Foroko lehendakaria. Erakunde konstelazioak eta Coaching sistemikoan aditu. Newfield Consulting-en eskutik Zuzendaritzarako Konpetentzia Generikoan Diplomatu (CDG).

Sacanell, Enrique

Coach-a, Deustuko Unibertsitatean Soziologia eta Politika Zientzietan lizentziatua. Garapen estrategikoan, politika publikoetan, aldakuntzaren kudeaketan, kalitate sistemen kudeaketan, eta errendimendu altuko taldeen garapenean, ikaskuntza-gidari eta kontsultore-aholkulari independentea.

Vázquez, Mónica

Psikologian lizentziatua eta Kultura-arteko graduondokoa. Euskadiko UNESCO Etxeko Hezkuntza arloko arduraduna. 14 publikazio koordinatu ditu eta Bizikidetzarako eta Bakerako Hezkuntzari, Giza Eskubideei eta Kultura-arteko hezkuntzari buruzko 4 publikazio

didaktikoren egilea da. Giza Eskubide eta Bake Hezkuntzaren elkarteen foroko presidente orde.

Wilhem, Javier

Psikologian lizentziatua. Bitartekaria. Espainiar estatuko eta Italiako unibertsitate ezberdinetan bitartekarien irakasle-formatzaile. MYC, Bitartekaritza eta Elkarbizitza, erakunde zuzendari. Bitartekaritza eta Elkarbizitzako 7 zentro publikotan zuzendari, eta Bartzelonako Diputazioko Hiri Bitartekaritza Programaren Gainbegiratzaile.

Formazioko tutoreak

- Aurrekoetxea Pérez, Irantzu
- Gallastegi, Asier
- Ruiz Santana, Gorka

Izen-ematea eta Informazioa

Izen-emate epeak : 2011ko uztailak 13tik irailak 10era.

Beharrezkoa da formularioa bete eta Kurrikulum-a helaraztea.

Formazioaz arduratuko den erakundeak, parte hartzaileen hautaketa-prozesua burutuko du; izen-ematearen ordena, hautagaien kurrikulum-a, eta ikastaroaren beharrak eta ezaugarriak tarteko, taldearen aniztasuna ziurtatzea kontutan hartuko da partaide-taldea erabakitzeke.

Ebazpenak: 2011ko irailak 18tik 20ra.

Egun hauetan zehar, partaideen zerrenda aditzera emango da.

Matrikularen formalizazioa: 2011ko irailak 20tik 23ra.

Matrikula formalizatzeko beharrezkoa da 150€-ko fidantza ordaintzea. Fidantza hau ikastaroaren bukaeran bueltatuko da, saioen %80an parte-hartzea konfirmatuz gero.

Programa

MODULOA	EDUKIAK	IRAKASLEAK	DATAK
I. BAKE-KULTURA	<ul style="list-style-type: none"> • Bake-Kulturaren funtsa eta oinarriak • Gaur egungo munduan bakea eraikitzea • Testuinguru ezberdinetako gatazken arrazoiak • Bake-Kulturaren esparruko politika publikoak • Jarduera egokiak 	Carlos Martín Beristain Gorka Ruiz	Urriak 28/29
II. GIZA ESKUBIDEAK	<ul style="list-style-type: none"> • Kontzeptu mailako sarrera • Giza Eskubideen inguruko babeserako sistemak • Bakerako Giza Eskubideak • Giza Eskubideak sustatzeko baliabide praktikoak 	Asier Martínez Mónica Vázquez Zenbait gonbidatu	Azaroak 18/19
III. GIZARTE ESKUARTZEAN BAKE-KULTURA GARATZEA	<ul style="list-style-type: none"> • Bakerako Hezkuntzaren ezaugarriak • Ezbiolentzia • Indarkeria tipologiak • Esku-hartzea testuinguru ezberdinetara hedatzeko ezaugarriak eta lanerako gakoak 	Susana Harillo Zenbait gonbidatu	Abenduak 16/17
IV. a) GATAZKEN ERALDATZEA	<ul style="list-style-type: none"> • Gatazkaren teoria eta azterketa • Gatazken eraldaketarako metodologiak • Gatazken eraldaketarako teknika eta baliabide alternatiboak • Kasu praktikoen azterketa 	Paco Cascón	Urtarrilak 20/ 21

MODULOA	EDUKIAK	IRAKASLEAK	DATAK
IV. b) GATAZKEN ERALDATZEA	<ul style="list-style-type: none"> • Erakunde barneko gatazken esku-hartzea • Sistemen teoria orokorra • Egoera errealean inguruko ariketa praktikoak • Gatazken eraldaketarako baliabide praktikoak: trebeziak 	Enrique Sacanell Asier Gallastegi	Otsailak 10/11
V. KOMUNIKAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazioaren axiomak • Pertsonarteko komunikazio sistemak • Komunikaziorako teknikak • Komunikazio eraginkorra • Aldakuntzarako teknikak 	Jesús Hernández Aristu	Martxoak 2/3
VI. a) BITARTEKARITZA ETA NEGOZIAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> • Marko kontzeptuala • Bitartekaritza eta negoziazioaren oinarri nagusiak eta gakoak • Bitartekaritza eta negoziazioaren aldiak • Gizarte esku-hartzean bitartekariak duen errola • Banakako eta taldekako esku-hartzean psikodramazko teknika aktiboen erabilpena 	Javier Wilhem María Méndez	Martxoak 23/ 24
VI. b) BITARTEKARITZA ETA NEGOZIAZIOA	<ul style="list-style-type: none"> • Esku-hartzerako esparruak • Negoziazioa eta bitartekaritzaren praktika burutzea • Betekizun eta zereginak • Kasu praktikoak 	Yolanda Muñoz M ^a Eugenia Ramos Irantzu Aurrekoetxea	Apirilak 20/21

Erakunde Antolatzailea



Erakunde Koordinatzailea



Gatazketarako bitartekaritza zentroa
Centro para la mediación y regulación de conflictos

edetaldea